

IRAKASLEAK. SENTSIBILIZAZIOA

ELKAR EZAGUTZEKO-DINAMIKA. AUZOKIDEEN PATIOA¹

1. DEFINIZIOA

Taldea osatzen duten pertsonen ezagutzan sakondu nahi da.

2. HELBURUAK

Taldeko beste pertsona batzuen oinarritzko datu batzuk edo ezaugarri batzuk ezagutzea.

3. GARAPENA

Bi zirkulu zentrokide eratu behar dira, bata besteari begira gera dadin; lehenik eta behin, kanpoko eta barruko zirkuluko pertsonak, bost minutuz, beren ezaugarri batzuk azaldu beharko dizkiote bikotekideari (adibidez, lau ezaugarri); jarraian, saioaren dinamizatzailerak kanpoko zirkulari adieraziko dio posizio bat eskuinera biratu behar duela, azalpena berriz hasita; bizpahiru bira egin daitezke, baina aldez aurretik zenbat egingo diren ohartarazi gabe. Azkenean, pertsona guztiak haiekin hitz egin duten guztiei aurkeztuko zaizkie.

4. EBALUAZIOA

Azalpena nola aldatzen joan den ikus daiteke, errepikatzen joan ahala.

¹MARTÍN, C.; CASCÓN, P.: *La alternativa del juego (1). Juegos y dinámicas de educación para la paz*, Los libros de La Catarata, Madrid, 2010.